KALEKO ERABILERA DATUAK ELKARREKIN ULERTZEN ETA INTERPRETATZEN

TAILERRAK

EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA JARDUNALDIA 2022

2022ko Euskal Soziolinguistika Jardunaldiko parte hartzaileak lau taldetan banatu ziren egunaren tarte batean (12:30-14:00) **Hizkuntzen erabileraren kale neurketa**ren emaitzen gainean talde-dinamiken bidez solasteko eta interpretazioa modu kolektiboan lantzeko.

Emun-eko aholkulariak arduratu ziren talde horien dinamizazioaz. Mentimeter aplikazioaren bidez zenbait galderari parte hartzaileek telefono mugikorretik emandako erantzunak bildu eta ikusarazi ziren. Hasteko kale neurketak erakutsitako argazkia oinarri hartuta **euskararen egoera kolore batekin lotzeko ariketa** egin zen talde bakoitzean. Emaitzak ikusi eta elkarrekin komentatu ziren.

Ondoren, Soziolinguistika Klusterrak kale neurketaren emaitzetatik 5 eztabaidagai proposatu zituen:

1. ARNASGUNEAK
2. HIRIGUNEAK
3. GAZTEAK ETA HELDU GAZTEAK
4. GENEROA
5. BESTE HIZKUNTZAK

Bozketa bidez, horietako bi hautatu zituen talde bakoitzak.



Talde bakoitzean, beraz, bina gai landu ziren. Kale neurketak gai horren inguruan emandako emaitza nagusiak eta hauek interpretatzeko ideia nagusiak jasotzen zituen orrialde bat baliatu zen solasaldia pizteko (ikus eranskina). Bozketa bidez hala erabakita, beraz, guztira lau tailerretan 3 gairen inguruan aritu ziren: arnasguneak, hiriguneak eta gazteak eta heldu gazteak. Hurrengo orrialdeetan jasotzen dira tailerretan gai hauen bueltan ateratako ideia nagusiak:

1 ARNASGUNEAK

Zerk eragi(te)n du deskribatzen den egoera eta bilakaera?

- Politika guztietan (hirigintza…) ez da kontuan hartu bestelako arloen gainean zuten eragina: hizkuntzan, kulturan… Orain konturatzen gara nolako eragina zuten (adib. Errenteriatik Oiartzunerako bidegorriak erdara indartu du Oiartzunen). Administrazio publikoa da eragile nagusia. Hizkuntzaren dimentsioa ez da inola ere presente egon.
- Globalizazioa:
    - Bizimoduen homogeneizazioa
    - Konexioak
    - Hirigintza
    - *mugimendu demografikoak (arnasgunetik kanpoko aberatsak doaz herri txikietako etxe onenetara, eta kanpoko pobreak etxe merkeagoetara)
    - Teknologia + ikus-entzunezkoak
- Gero eta telebista gutxiago: aisialdia erdaraz, gaitasuna gutxitu egiten da, erosotasuna ere bai, hizkuntza menperatzeko zailtasuna
- Arnasgune guztietan ez dira faktore berberak izaten (adibidez, inguruetan zein herri dagoen…)
- Sareak zabaltzea
- Indibidualizazioa
- Aisia herritik kanpo bilatzea
- Arnasguneetakoen portaera kanpora joaten direnean
- Mentalitate elebakarra eta kulturbakarra da nagusi EHn
- Norbanakoaren (batez ere helduen) erantzukizuna + jarrera (ez dugu hizkuntza erreklamatzen)
- Kanpotarrekin oso eroso aritu ohi gara gaztelaniaz
- Kanpotarrek eragin handia dute herri txikietan (familia bakarra iristea nahikoa da herriko panorama goitik behera aldatzeko)
- Erlaxazioa egon da arnasguneetan
- "Neutro asko arnasgune batean jaio izan balira, euskaldunak izango lirateke.
- Mugikortasuna: arnasguneetara joan den jendea euskalduna da?
- Mugikortasunarekin lotuta, hirigintza eredua

- "Zenbat eta herri euskaldunagoa, euskararen egoeraren kontzientzia txikiagoa"
- "Landa-eremura jendea etorri da hizkuntza-gaitasuna apalagoa duena."
- Herri txikietatik hiriguneetara joan ziren batzuk herri txikietara bueltatu dira.
- Herri txikietara joan dira herri ertainetan bizi ezin diren biztanleak.
- Herri txikietara joan diren euskaldunek sarri ez dute bizia bertan egiten.
- Lagun taldeetan gaztelania hautatzeko joera gero eta handiagoa da. Gazteen sarea aldatzen ari da.
- Biztanleak gaztelaniaz gero eta hobeto moldatzen dira.
- Eskolan gero eta lehenago ateratzen dira herritik. Erdaldundu egiten dira. Eskola txikia vs. Makro-eskolak
- Aisia eskolaz kanpo egiten dute arnasguneetako haurrek.
- Arnasguneak estrategikoak dira, baina ez dute nahi apartekoak izan.

Nola jokatu aurrera begira hizkuntza-plangintzan eta hizkuntza-politikan, esku hartu eta euskararen biziberritzea bultzatzeko?

- Kanpokoei erakutsi zein den arau soziala arnasguneetan (euskara erabiltzea); zailagoa da gaztelaniadunekin
- Onartu eta ohitu hizkuntza desberdinetan bizitzen
- Arrazoiak identifikatu: identifikazio zintzoa eta praktikara begirakoa behar da
- Diagnostiko hori kontua hartu hizkuntza politika berrietan
- Tokian tokikoa: ajea non, sendagaia hortik
- Hizkuntza dimentsioa sartu politika guztietan
- Hizkuntza politika ausartak
- Motibazio mota desberdinak bilatu "zergatik euskaraz?" Galderari erantzuteko
- Arnasguneen garrantziari buruzko kontzientziazioa landu
- Hizkuntza ez dadila lotu zigorrarekin: hezkuntza sistema oso punitiboa da (saririk ez du ematen)
- Konplexuak gainditu (atzerritarrak ez dira aitzakia)

- Erremintak ezarri (ez dadila izan borondatezkoa; adib. ELE): oraindik ere ondo samar dauden herriak mimatu
- Zeharkakotasuna landu hizkuntza politiketan
- Tresnak eman kanpotik datozenei + beharra senti dezatela
- Ez dira atzerritarrak soilik: bertakoak + inguruko herrietakoak ere bai
- Hizkuntza politika orokorra bai, baina herriz herriko eskala ere bai
- Herri txikietan baliabide gutxi dago, teknikaririk ere ez dago: euskara beste arlo guztiekin lotu behar da (berdintasuna…)
- Euskaraz bizitzearen plazerra zabaldu
- Eskualde mailako esku-hartze sistemikoak landu: arnasguneak ez daude isolatuta (erdi mailako hiriek aurrera egin dezatela, bestela ez dute aurrera egingo arnasguneek)
- Kontzientziazioa + aktibazio soziala
- Arnasgune funtzionalak bermatu
- Hizkuntza aniztasunaren kudeaketa
- Gazteentzako erreferenteak egon daitezen inbertsioak egin (Interneteko jolasak…): dirua behar da (baina diru gutxirekin eta kontrakulturaren indarraz ere gauza asko egin daitezke: Iruñea).
- Pedagogia egin behar da arnasguneen garrantziaz
- Mugikortasun eta hirigintza politikak ondo pentsatu behar dira eta proiektu berriak kontrolatu hizkuntza ohituretan duten eragina kontuan hartuz.
- Erakunde guztietatik datozen politikak indartu behar dira. Arlo desberdinetatik datozenak.
- Euskaraldia bezalako ariketa sozialak egiten jarraitu
- Administrazioak baliabide ekonomiko gehiago jarri beharko lituzke.
- Beste arlo batzuetako enfokearekin jorratu beharra. Hirietako dibertsitatea landa-eremuetara eramatea.
- Administrazioak zeharkakotasun ikuspegia erakutsi behar luke. Landa eremuak biztanlez hazi behar badira, hizkuntza kontuan hartu.
- Biodibertsitatean fokua jarritako politikak egin beharko lirateke.
- Arnasgune izaeraren transmisioa egitea beharrezkoa da.
- Sentsibilizazioa lantzen jarraitu behar da.
- Migrazioetan arreta jarri behar da eta harrera integralean txertatu euskara.

- Arlo eta gai desberdinetatik diskriminazio positiboa euskarari (irakasleak, osasun zerbitzuak, haurrengatiko diru-laguntzak).
- "Euskarak zer ematen digu?" – Identifikatu eta indartu.
- "Euskara iraultzarekin lotu beharko genuke"
    - Aldaketa klimatikoa
    - Jasangarritasuna
    - Ekologia
    - Komunitatea
- Garapen Jasangarriko helburuak
- Harrera plan sakonak egin behar dira immigrazioko populazioari harrera egiteko (gaztelaniaz).
- ELE aplikatu

2 HIRIGUNEAK

Zerk eragi(te)n du deskribatzen den egoera eta bilakaera?

- Kontzientzia, nahi soziala → hezkuntza-sistemaren bidez
- H1 erdara dute batzuk euskal hiztun aktibo bihurtu dira, asko guraso bihurtu direnean → transmisio-indarra
- Eskaintza berbera bi hizkuntzetan badago, erosoago zaigunera goaz.
- Hizkuntza-erraztasuna = gakoa. → arrazoi bat behar dute euskararekiko apustua egiteko. Kanpo faktoreek gaztelaniazko joera elikatzen dute.
- Gasteizi balioa eman = atalase-mailara iritsi gabe lortu du igoera. → hirigintza-faktoreak ere aldeko dituzte (zerbitzuak auzoka)
- Donostia eta Bilbon hobekuntza nabarmena egon da (Zara eta antzekoetan gero eta langile euskaldun gehiago); Irunen, berriz, ez da hori gertatzen
- Kultura eskaintza goraka doa, baita euskarazkoa ere
- Euskara oso mehatxatuta zegoen eta horrek erreakzioak eragin zituen
- Etxeetan bi hizkuntza egoten ohituak
- Gero eta gehiagotan euskara soilik hizkuntza instituzionala da hiriguneetan
- Euskaldunen trinkotzea garrantzitsua da eta hirian zailagoa da euskaldunak identifikatzea
- Hiriguneetako arnasgune funtzionalen garrantzia eta gabezia
- Orexak duen eragina baino handiagoa du Donostiak
- Hirigune hauek duten irudi kosmopolita modernoa
- Arabako ezagutza-datuak apalagoak diren arren, Gasteiz ari da gehien hazten erabileran
- Hirietan astegun osoak pasatzen dira (denbora, erosotasuna)
- Turismoaren agerpenak bertakoengan duen eragina
- Atzerritar jatorriko herritarren presentzia
- Auzoka funtzionatzen duten ezberdintasunak
- Hiriguneetako politikek eragin biderkatzaileak dituzte.
- Gune metropolitanoek daukaten nortasuna (Bilbo Handia)
- Aurreiritziek eragina dute. Hirietan uste duguna baino euskaldun gehiago daude.
- Migrante eta turisten eragina. Bi talde hauek gune ezberdinak okupatzen dituzte.

- Hirigintza motak kapitala eta norma erdialdean jartzen du. Eta norma horretatik kanpo kokatzen da euskara.
    - Norman euskara eskolan kokatzen da
    - Kafe Antzokian eta Alde Zaharrean euskara normaren barruan dago. Espazio erosoa da. Kontsumoarekin lotutako adibideak dira. Badago alternatibarik?
    - Lehenago euskaraz abestea punkia zen. Orain norma?
- Zenbait espazio ideologikoetan espazioa galdu du euskarak (edo ber-ideologizazio bat gertatu da). Politikariek ezbaian jarri dituzte eskubide linguistikoak. Baina "euskal washing-ak" dirau. Euskararen aldeko eragileei neurria hartu diete eta zokoratu egin dituzte.
- Euskaldunen trinkotzea oso garrantzitsua da eta hirian zailagoa da euskaldunak identifikatzea
- Hiriguneetako arnasgune funtzionalen garrantzia/gabezia
- Orexak duen eragina baino gehiago du Donostiak
- Hirigune hauek duten irudi kosmopolita modernoa
- Arabako ezagutza-datuak apalagoak diren arren, Gasteiz ari da gehien hazten erabileran. Adi egon beharko!
- Hirietan astearen parte handiena pasatzen du gizartearen gehiengoak: denbora gehiagoa, ekintza gehiago, erosotasun handiagoa
- Turismoaren agerpenak bertakoengan duen eragina
- Atzerritar jatorriko hiritarren presentzia
- Auzotik auzora ikusten diren ezberdintasunak
- Hiriguneetako politikek eragin biderkatzaileak dituzte
- Gune metropolitarrek daukaten nortasuna (Bilbo Handia): Sopelako batek ez du zertan bizitza herrian egin, metroa hartu eta kontzertu bat ikusi dezake Bilbon
-

Nola jokatu aurrera begira hizkuntza-plangintzan eta hizkuntza-politikan, esku hartu eta euskararen biziberritzea bultzatzeko?

- Komunitatearen garrantzia → erronka globalen aurrean komunitatea indartzeko ahalegina. (herri identitatea, atxikimendua…)

- Guneak sortzera + kontzientziazio-ariketa. Arnasgune funtzionalak. Haur-gazteak transmisio, integrazio, sozializazioa-elementuak indartzeko beharra.
- Auzoaren eskalaren garrantzia: auzoka egitea eragin linguistikoaren ebaluazioak
- Identitatea garatzeko aukera; identitatea hizkuntzarekin lotzeko aukera
- Gertuko harremanak sustatzeko aukerak (kultur ekipamenduak…)
- Euskalgintzaren antolaketa-ereduak zentralizatuago, kohesionatuago (Donostia, Gasteiz vs. Iruñea) → kaleko presentzian, aisialdian… Bolondresak bateratzeko anbizioa.
- Hizkuntza-politika zehar lerro gisa landu beharra agerian jartzen da. Adib.: turismo-politikak.
- Zer transmititzen ari gara? Euskara haurren hizkuntza dela? Hezkuntza-sistema, transmisio-, aisialdi-politikak, integrazio-politikak birpentsatu beharra.
- Zein hizkuntza-politikak susta dezake motibazioa?
- Dirua behar da
- Aurrerapausoetan ausartu
- Motibazio-iturri desberdinak egon daitezke: derrigortasunak/beharrizanak sortuz (legez; hizkuntza-eskakizunen bidetik), aisialdian… hizkuntza-plazerra irudikatu (emozionala; adibidez, Korrika), hizkuntzaren prestigioa landu
- Erreferenteen lanketa → ETB2 ez da ona
- Akordio estrategikoak: soziopolitikoak, oinarria jarriko dutenak. Eragile guztiak batera.
- Alor sozioekonomikoa (sektore publikotik harago)
- Lehen hitza euskaraz egin
- Euskaraldiak onura handia ekarri du Bilbon
- Ikastetxeetan arnasgune funtzionalak sortu
- Harrera planak egin: udalek, ikastetxeetan… ("familia laguntzaileak" sortu eta erabili)
- Gehiago begiratu Gasteiz eta Iruñera: zergatik ez da Gasteizkoa gertatu Bilbon? Aztertu egin behar da
- Maulen gaztetxea egin dute ikasleentzat
- Ez dadila izan soilik administrazioaren hizkuntza, baina herritarrena ere.

- Gurasoentzako arnasguneak sortu
- Nortasun euskalduna ikusgarri egitea eta euskara kalera ateratzea (Adb. Loraldia)
- Aisialdi, kultura eta kirolean euskara bultzatu behar dute, talde profesional batzuek eragin askoz handiagoa dute maila lokalean edo auzoan egiten denak baino.
- Ekitaldi handietan euskara bermatzea. Ekitaldi modernoei euskara gehitzea.
- Baionan azpimarra: gaztelania euskara baino gehiago entzuten da.
- Hirietan dago baliabide gehien. Dirua inbertitu behar da arriskatzeko.
- Hirietan dago aniztasun gehien. Aniztasun hori saretu behar da nortasun eleaniztun euskalduna garatzeko.
- Politika publikoek gizartea eraldatzeko gaitasuna dute? Nahiko mugatua. Eragileek posizio erosoa hartu dute eta ez dago borrokatzeko gogorik. Hala ere kontraesana badirudi ere, euskara erabiltzeko motibazioa altua da.
- Bilbo da euskararen erabiltzaile potentzial gehien duena (biztanleria, baliabideak…). Hala ere, hiri basatia da; espazio gutxi daude harremanetarako.
- 0-16 urtekoentzat aisialdia kontzertatu behar da (Udaltop-en ikusitako bidetik).
- Lan-munduak daukan eragina/gaitasuna jendeari euskaraz egitera bultzatzeko baliatu beharko litzateke. Hirietan zerbitzuek hartzen dute garrantzia, baina horietan prekarietatea dago. Aisialdiarekin harremanean daude eta kalearekin lotura gehien duten lantokiak dira.
- Elkarbizitzaren gaian hizkuntza erdigunean kokatu behar da (Katalunian elebitasun pasiboari ematen zaion funtzioak hiztunen produkzioa laguntzen du).
- Aldahitzen 60 ordutan euskara ulertzera iristeko metodoa gakoa izan daiteke migranteen harreraren kudeaketa linguistikoan.
- Etorkinak gogotsu daude integratzeko. Hori hizkuntzaren bidez egiten da. Zein estrategia euskara edo gaztelania ez dakitenekin? Gazteen kasuan barnetegiak antolatu daitezke. Eskolako errefortzuarekin oso zaila da.
- Baliabideak izan ditzakegu. Lehentasun kontua da.
- Mundu digitalak garrantzia handia du haur eta gazteen kasuan.
- Ikuspegi linguistikoan eragina duten esparruenganako begirada zabaldu behar dugu (adb. Hirigintza)

- Nortasun euskalduna ikusgarria egitea eta euskara kalera ateratzea (adib. Loraldia)
- Aisialdia, kultura eta kirolean euskara bultzatu beharra dago, talde profesional eta eskala handiko ekimenek eragin askoz handiagoa dute maila lokalean edo auzoan egiten denak baino (adib. Bruce Springsteen euskaraz)
- Baionan jarri behar da azpimarra (gaztelania > euskara)
- Hirietan dago baliabide gehien: dirua inbertitu behar da arriskatuz
- Hirietan dago aniztasun gehien, aniztasun hori saretu behar da nortasun eleaniztun euskalduna garatzeko

3 GAZTEAK ETA HELDU-GAZTEAK

Zerk eragi(te)n du deskribatzen den egoera eta bilakaera?

- Erreferenteen globalizazioa (iturri internazionaletatik edan)
- Gizarte tipologia aldatu da: euskaldun gehienak ez dira etxetik euskaldun
- Hizkuntzaren egoerarekiko kontzientzia falta
- "Eskolako hizkuntzarekin" apurtzeko beharra: eskolan euskaraz, aisian gazteleraz.
- Identitatea: euskalduna/espainola
- Erreferenteei edo kontsumo kulturalari dagokionez, geroz eta iturri global eta erdaldunagoetatik edaten dute gazteek.
- Erabilerak bultzatzen du motibazioa eta kontzientziazioa edo alderantziz? Nondik hasi?
- Soziolinguistika eta euskararen egoera-historia landu behar da eskoletan.
- Haurtzarotik nerabezarora muda, gaztarora berriro muda. Kontzientziaren garrantzia eta horretan eragina izan dezaketen faktoreak (identitatea, politika…)
- Nerabeak euskaraz aritzea testuinguru batzuetan ez da erosoa, ez da guaya; euskaraz hitz egitea "kontra egitea" izan liteke (beste zapalkuntza batzuei kontra egiteko bide izan daiteke – feminismoa, ekologismoa…
- Gazteei galdetzea garrantzitsua litzateke.
- Gaitasuna: eremu formalerako bai, beste eremuetan erabiltzeko nahikoa baliabide badugu?
- Elebidun orekatuek beste hiztunaren araberako jokabidea defendatzen duen talde bat eta horiek erdal elebidunekin gaztelaniarako joera.
- Euskaraz hitz egitea noiz da transgresore?
- Euskalduntasuna ulertzeko modua aldatu egin da? Ze erreferentzia eskaintzen zaie euskaraz?
- Euskararen irakaskuntza eskoletan (gaitasuna, hizkuntza-ideologia…) nahikoa?
- Euskaraz aritu nahi badute gazte askok eskolatik kanpo espazioak bilatu behar izan dituzte.
- Militantzia esparruak (herriko asanblada, talde feministaʼ…) dira askoren euskal eremuak (batez ere nesketan).

- Kontzientzia, nahi soziala. Hezkuntza sistemaren bidez.
- H1 erdara duten batzuk euskal hiztun aktibo bihurtu dira, asko guraso bihurtu direnean. Transmisio-indarra.
- Hizkuntza erraztasuna da gakoa. Arrazoi bat behar dute euskararekiko apustua egiteko. Kanpo faktoreek gaztelaniarako joera elikatzen dute.
- Gasteizi balioa eman behar zaio. Atalase mailara iritsi gabe lortu du igoera. Hirigintza faktoreak alde dituzte. Zerbitzuak auzoka.
- Komunitatearen garrantzia. Erronka globalean aurrean hori indartzeko ahalegina. Herri-identitatea, atxikimendua…
- Guneak sortzea + kontzientziazio ariketa. Arnasgune funtzionalak. Haur eta gazteak integrazio sozialerako elementuak indartzeko beharra.
- Auzoaren eskalaren garrantzia. Auzoka eragin linguistikoaren ebaluazioak egitea. Identitatea garatzeko aukera. Identitatea hizkuntzarekin lotzeko aukera. Gertuko harremanak sustatzeko aukerak (kultur ekipamenduak…)

Nola jokatu aurrera begira hizkuntza-plangintzan eta hizkuntza-politikan, esku hartu eta euskararen biziberritzea bultzatzeko?

- Arlo informala bultzatu
- Txikien arteko sareak
- "Kontsumogaiak" euskaldundu
- Hizkuntza-aniztasunaren aldeko diskurtsoa
- Kulturgintza/sormena bultzatu + kontzientzia politikoa
- Soziolinguistika gehiago eta analisi sintaktiko gutxiago euskara klaseetan.
- Euskararen historia transmititu eskoletan
- Euskalgintza eta kulturgintza estrategia/politika bateratua
- "Erabilerak sortuko du kontzientzia". Ez alderantziz. Erabilerarako espazioak ematen bazaizkie, jabetuko dira zailtasunez; kontzientziatuko dira.
- Motibazio instrumentala (batez ere hiriguneetan) konbentzitzeko ez euskaltzale eta ez erdalzale direnak.
- Euskaraz haur eta gazteentzat erreferentziazkoak diren jarduerak modu sistematikoan eskaini (kirola, kultur eskaintza…)
- Eskoletan euskararen irakaskuntzan eragiteko moduetan sakondu (hizkuntza-ideologiak, gaitasunean, ahozkotasuna, bizipen onak eragin…)

- Ereduak (aisialdia, lan-mundua…) eskaini behar dira. Euskaldunak erdaraz telebistan (adibidez) saihestu behar dira. Baliabideak, ETB…
- Anbizioa, ametsa, zeharkakotasuna.
- Kirol esparruari bereziki erreparatu behar zaio (entrenatzaileak, baliabideak…)
- Zenbait kultur adierazpide euskarari lotu (urbanoagoak).
- Transbertsalitatea. Beste fenomeno batzuekin aztertu (orain arte hizkuntzatik hizkuntzara pentsatu izan da eta hori zabaldu egin behar da).
- Postureoa gainditu (bai erakunde, bai norbanakoena) eta hori nola eraman egunerokotasunera?
- Etorkinak euskal eleaniztun izateko baliabideak eskaini (euskara ikasteko aukerak, lanketa, harrera zerbitzuetan kontuan hartu…)
- Euskalgintzaren antolaketa-ereduak zentralizatuago, kohesionatuago (Donostia, Gasteiz vs. Iruñea). Kaleko presentzian, aisialdian… Boluntarioak bateratzeko anbizioa.
- Hizkuntza-politika zehar lerro gisa landu beharra agerian jartzen da. Adibidez, turismo politikak.
- Eskaintza berbera bi hizkuntzetan badago, erosoen zaigunera joko dugu.
- Zer ari gara transmititzen? Haurren hizkuntza dela euskara? Hezkuntza sistema, transmisioa, aisialdi-politikak, integrazio-politikak birpentsatu beharra.
- Zein hizkuntza-politikak susta dezake motibazioa?
    - Dirua jarrita
    - Aurrerapausoak ausart
    - Motibazio iturri desberdinak:
        - Beharrizanak sortu
        - Derrigortasunak (hizkuntza-eskakizunak)
        - Aisialdian plazerra (emozionala. Adb. Korrika)
        - Prestigioa
- Erreferenteen lanketa. ETB2 kanpora
- Akordio estrategikoak: soziopolitikoa, oinarria jarriko duena. Eragile guztiak batera!
- Alor sozioekonomikoa (sektore publikotik harago)

4 ERANSKINA: GAIAK KOKATZEKO INFORMAZIOA

Galderak

1. Zerk eragi(te)n du deskribatzen den egoera eta bilakaera?
   -
2. Nola jokatu aurrera begira hizkuntza-plangintzan eta hizkuntza-politikan, egoeran esku hartu eta euskararen biziberritzea bultzatzeko?

Gaiak

ARNASGUNEAK



- Eremurik euskaldunenean euskararen erabilera behera
- Interes estrategikoa.
- Euskara modu naturalean transmititu, birsortu eta elikatzen baita.
- Hego Euskal Herrian, eremu erdaldunena euskaldunduz eta eremu euskaldunena erdaldunduz.
- Arretaz jarraitu beharrekoak: bizi-proiektu bideragarriak garatzeko aukerak, hirigintza-proiektuen eragina, barne- eta kanpo-migrazio fenomenoak…

HIRIGUNEAK



- 1993tik hazkunde-proportzio handiena % 25-50 ezagutza-eremuak.
- Duela hamarkada batzuk euskararik entzuten ez zen lekutan erabilera hazi.
- Ezagutza baxuko zenbait udalerritan euskaldun kopuru handia bizi arren, proportzio txikia osatzen dute (adb. Bilbo Handia).
- Euskaldunen dentsitate handiko gune erosoen gabezia.
- Jatorri atzerritarreko biztanleriaren bizileku eta turismo gune dira.

GAZTEAK ETA HELDU GAZTEAK



- Berdinen arteko harremanetan euskararen erabilera baxuagoa adin guztietan.
- Haurrak eta nagusiak batera euskararen erabilera altuagoa.
- Guraso izatearen eragina: kontzientzia eta praktika
- Haurren mundua euskarari lotuago: kultur eskaintza, aisialdi antolatua, udalekuak….
- Haurrek eta gazteek biztanleria piramidean pisu txikia.
- Eskolak euskaldundutako hiztunen profil linguistikoa: euskaraz dakiten gazte eta haur gehienen lehen hizkuntza gaztelania edo frantsesa eta horietan errazago.
-

GENEROA



- Zenbat eta gazteago, orduan eta gehiago gailentzen zaio emakumezkoen euskararen kale-erabilera gizonezkoenari
- EHko lurralde guztietan eta neurketaren aurreko edizioetan ere.
- Euskararen biziberritze-prozesuan, emakumezkoen presentziak protagonismoa
- Emakumeek eta gizonek euskara zein irudirekin eta zein baliorekin lotzen dute?
- Euskararen erabilerak genero-rolekin duen harremana ikertu behar.
-

BESTE HIZKUNTZAK



- Erabilera % 3 inguru azken 15 urteotan.
- Jatorri atzerritarreko biztanleak hirukoiztu edo laukoiztu egin dira 20 urtetan. Gaur egun %10-16. Horietatik % 50 gaztelania hiztunak.
- Etorri berriak tarte labur-ertainean gaztelania eta frantsesa erabiltzen?
- Araban eta gizonezko helduen artean erabilera altuena.
- Baiona, Gasteiz eta Bilbon beste hizkuntzen erabilera euskararena baino altuagoa.
- Turistak ere beste hizkuntzen hiztun (hirietan bereziki).